



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko irailaren 10a

88. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, haurdunaldiaren borondatezko etetea dela-eta profesionalen erregistroak sortzen dituen. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan produkzio integratuko marka bat sor dezan Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorerako. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroan bete dadin Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da flebotomia terapeutikoak modu zentralizatuan eta hematologiako espezialista baten ikuskaritzapean egin daitezen. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari kargu hartzen dio, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidearen erabilerari dagokionez, eta legedia osorik eta leialki bete dezan exijitzen dio. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait obra bukatzeko epea ezartze aldera. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan Nafarroa 2012 Planari dagokionez egiteko asmoa duen murrizketa. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, preso politiko maputxteen egoerari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna helarazten baitzitzio Haneen Zoabi diputatuari. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeko zenbait epe bete ez izanari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Interes Turistikoko Festa izeneko sariari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak uda honetan eginiko bisitei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren webguneak euskaldunei emandako informazioa gaurkotu gabe eta oker egoteari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (20. or.).
- Galdera, zirku-arteak indartze eta sustatze aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak abian dituen ekimenei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (20. or.).
- Galdera, museoei eta bilduma iraunkorrei laguntzeko hiru kontusailak kentzeari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Kultura Departamentuaren web-orrialdean organorako 2008ko musika zikloaren programa soilik kontsultatu ahal izateari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (21. or.).
- Galdera, organorako musika zikloaren esku-orria ele biz egin den jakiteko, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko zein izan den udalekin izan den koordinazioa organorako musika zikloa antolatzerakoan eta jakitera ematerakoan, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Kultura Departamentuak aurtengo Urte Xakobeoaz egiten duen balorazioari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Liburutegi Nagusiak Alde Zaharreko bizilagunei eman beharreko mailegu zerbitzuari eta lekuko kontsultari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren arratsaldeko zerbitzuari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (24. or.).
- Galdera, ordenagailu nagusi berriaren erosketari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proiektuaren gainekoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak pasabide kanadarrak konpontzeko eta aztertzeko darabilen prozedurari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Erriberan ozonoaren maila igotzeari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Aralarko guardetxe berriari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (27. or.).
- Galdera, “Sección clonal y sanitaria de la vid y patrones de vid en Navarra” izeneko ikerkuntza proiektuari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Lizarran eginen diren Karlismoari buruzko IV. Jardunaldiei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Familiei Laguntzeko Foru Lege proiektuari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (29. or.).
- Galdera, Familia-bitartekotzari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (30. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuak eman dituen “Nafarroa Abalei” buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (31. or.).
- Galdera, Mendekotasunaren Legea indarrean sartu zenez geroztik mendekotasun-graduak zehazte aldera egin diren balorazioei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (31. or.).
- Galdera, zerbitzu publikoen kalitate planari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (32. or.).
- Galdera, Abeltzainen Sektorearentzako Plan Estrategikoari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (32. or.).
- Galdera, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako beharizanei buruzko azterlana egite aldera sortutako taldeak eginiko urratsei eta ateratako ondorioei buruzkoa. Galdera erretiratzea (33. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat txanda murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Oposizio-lehiaketa bete gabe gelditu da (34. or.).

**I SAILA:****Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Errepideen 2009-1016 urteetako III. Plan Zuzentzailea. Proposamenak aurkezteko epearen luzapena (35. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko azaroaren 8ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege

proiektua 2010eko maiatzaren 28ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, haurdunaldiaren borondatezko etetea dela-eta profesionalen erregistroak sortzen dituen.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak haurdunaldiaren borondatezko etetea dela-eta profesionalen erregistroak sortzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu du eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapida dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147 eta 157. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Elehun Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Haurdunaldiaren borondatezko etetea dela-eta profesionalen erregistroak sortzen dituen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.
3. Foru Lege proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidatzea.
4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proposamena, haurdunaldiaren borondatezko etetea dela-eta profesionalen erregistroak sortzen dituen**

### **ZIOEN AZALPENA**

Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoaren helburua da oinarriko eskubideak ziurtatzea sexu- eta ugalketa-osasunaren arloan, bai eta haurdunaldiaren borondatezko etenduraren baldintzak arautzea eta botere publikoei dagozkien betebeharrak ezartzea ere.

Aipatu lege organikoaren 19.2 artikuluan ezarzen denez, haurdunaldiaren borondatezko etetearen zuzenean inplikaturiko osasun-profesionalek eskubidea izanen dute kontzientzia-eragozpenaz baliatzeko. Haurdunaldiaren borondatezko etetea egitea errefusatzea, kontzientzia arrazoiengatik, haurdunaldiaren borondatezko etetearen parte-hartze zuzena duten osasun arloko langileen banako eskubidea da, eta aurrez adierazi beharra dago, idatziz. Hala ere, osasun arloko langileek behar duten emakumeei osasun laguntza egokia emateko betebeharra dute, bai haurdunaldiaren beren borondatez eten aurretik bai ondoren ere.

Halaber, aipatu lege organikoaren 17.1 artikulua ezartzen duenez, haurdunaldia beren borondatezko etetea nahia adierazten duten emakumeek informazioa jasoko dute, horretarako joan daitezkeen zentro publiko nahiz kreditatuei eta prestazio hori jaso ahal izateko bete beharrezko izapideei buruz, bai eta kasuko osasun zerbitzu publikoak zerbitzua eman dezan bete beharreko baldintzei buruz ere.

Hori guztia kontuan hartuta, foru lege honetan ezartzen da haurdunaldiaren borondatezko etetearen zuzenean inplikaturiko osasun-profesionalek jarraitu beharreko prozedura praktika horrekiko kontzientzia-eragozpena adierazte aldera.

Halaber, foru lege honetan arautzen da Nafarroako Foru Komunitatean haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko kontzientzia-eragozpena adierazi duten osasun arloko langileen erregistroaren sorrera.

Osasun arloko administrazioek, halaber, haurdunaldiaren borondatezko eteteari buruzko prestazioa ziurtatu behar dute beren osasun-eskualdean; izan ere, halaxe ezarri zen egun indarrean dagoen uztailaren 1eko 14/2010 Foru Legean, zeinaren bidez Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatu baitzen.

Horretarako, giza baliabideak eta osasun arlokoak antolatzeke ahalmena dute; hain zuzen, prestazio hori emanen dela ziurtatzeko.

Aipatu prestazioan parte-hartze zuzena duten osasun arloko langileek badute aukera beren borondatez adierazteko prest daudela prestazioa ziurtatzeko, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako jarraikiz. Horretarako, foru lege honetan ezarritzen da haurdunaldiaren borondatezko etetean zuzenean inplikaturiko osasun-profesionalek zer prozedura jarraitu behar duten adierazte aldera prestazio hori gauzatzeko prest daudela.

#### **1. artikulua.** Xedea.

Honakoak dira foru lege honen xedeak:

a. Haurdunaldiaren borondatezko etetean zuzenean inplikaturiko osasun-profesionalek kontzientzia-eragozpena adierazteko prozedura ezartzea.

b. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko kontzientzia-eragozpena adierazi duten osasun arloko langileen erregistroa sortzea eta arautzea.

c. Haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko prest dauden osasun arloko profesionalek horretarako adierazpena egiteko prozedura ezartzea.

d. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko prest dauden osasun arloko langileen erregistroa sortzea eta arautzea.

#### **2. artikulua.** Aplikazio esparrua.

Foru lege hau aplikatzekoa izanen zaie haurdunaldiaren borondatezko etetean parte-hartze zuzena duten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langileei, kontzientzia arrazoiak tarteko, haurdunaldiaren borondatezko eteteak gauzatzeari uko egiten badiote, bai eta

halako praktikak egiteko prest dauden Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei ere.

**3. artikulua.** Kontzientzia-eragozpenaren adierazpena.

Haurdunaldiaren borondatezko etetean parte-hartze zuzena duten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langileek, kontzientzia arrazoiak tarteko, haurdunaldiaren borondatezko eteteak gauzatzeko ezintasuna badute, kontzientzia-eragozpenaren adierazpena aurkeztuko dute, eta, halaber, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako arrazoietatik zein alegatzen duten adierazi beharko dute. Adierazpen hori egiteko, foru lege honen 1. eranskinean ageri den eredia erabiliko da.

#### **4. artikulua.** Prestasunaren adierazpena

Haurdunaldiaren borondatezko etetean parte-hartze zuzena duten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langileek, haurdunaldiaren borondatezko eteteak gauzatzeko prest badaude, prestasunaren adierazpena aurkeztuko dute, eta, halaber, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako kasuetatik zeinetarako dauden prest adierazi beharko dute. Adierazpen hori egiteko, foru lege honen 2. eranskinean ageri den eredia erabiliko da.

#### **5. artikulua.** Atxikitako langileak

Foru lege honen ondorioetarako, haurdunaldiaren borondatezko etetean parte-hartze zuzena duten osasun arloko langileetat hartuko dira ginekologiako eta obstetriziako fakultatibo espezialistak, anesthesiologiako eta erreanimazioko espezialistak, erizaintzako diplomadunak eta emaginak.

Kontzientzia-eragozpeneko adierazpena eta prestasunaren adierazpena aurkezteko eta, geroago, baliogabetzeko, ondoko xedapenak bete beharko dira:

1. Kontzientzia-eragozpenaren adierazpena nahiz prestasunarena idatziz aurkeztuko dira, eta zerbitzuak ematen dituen tokiko laguntza espezializatuaren zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaizkio.

2. Kontzientzia-eragozpeneko adierazpena eta prestasunaren adierazpena aurkeztu ahalko dira, halaber, lantokiko erregistroan edo Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako

batean. Horretaz gain, telematikoki ere aurkeztu ahalko dira, sinadura digitala dutela, Administrazio elektronikoaren alorrean, Herritarrek zerbitzu publikoak bide elektronikoaren bitartez eskuratzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 6.1 eta 24.2 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

3. Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoaren 19.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, bai adierazpena bai haren baliogabetzea ebakuntza egiteko aurreikusitako eguna baino zazpi egun baliodun lehenago aurkeztu behar dira, gutxienez.

4. Prestasuneko edota kontzientzia-eragozpeneko adierazpenak jaso eta legez ezarritako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren, langileak zerbitzuak ematen dituen Laguntza Espezializatuaren Zuzendaritzako titularrak ofizioz aginduko du beharrezkoak diren inskripzioak egin daitezela.

5. Eskaerek ez badituzte legezko baldintzak betetzen, edota haurdunaldiaren borondatezko eteteetan parte-hartze zuzena ez duten langileek aurkeztu badituzte, Laguntza Espezializatuaren Zuzendaritzak uko egingo dio kasuko inskripzioa egiteari. Ebazpen horren aurka, langile interesdunak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzailearen aurrean.

**6. artikulua.** Kontzientzia-eragozleen erregistroa eta haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko prest dauden langileen erregistroa.

1. Haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko kontzientzia-eragozpena alegatu duten langileen erregistroa sortuko da. Bertan inskribatuko dira haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko kontzientzia-eragozpenaren adierazpenak.

2. Haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko prest dauden langileen erregistroa sortuko da. Bertan inskribatuko dira haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko prestasunaren adierazpenak.

3. Bi erregistro horiek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren mende egonen dira zuzenean.

4. Hona hemen erregistro horietako bakoitzak izanen dituen helburuak:

a. Artikulu honetako lehenengo idatz-zatiak aipatutako erregistroak jasoko ditu haurdunaldia-

ren borondatezko eteteak egiteko kontzientzia-eragozpenaren adierazpenen inskripzioak, bai eta adierazpen horien baliogabetzeak ere.

b. Artikulu honetako bigarren idatz-zatiak aipatutako erregistroak jasoko ditu haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko prestasunaren adierazpenen inskripzioak, bai eta adierazpen horien baliogabetzeak ere.

c. Bi erregistro horien helburua izanen da Nafarroako Osasun Administrazioari informazio nahikoa ematea, aipatu prestazioaren kudeaketa egokia ziurtatze aldera, haurdunaldia bere borondatezko eteteak nahia adierazten duen emakumeak jakin dezan zein zentro publikotara joan daitekeen, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan ezarritakoari jarraikiz.

#### **7. artikulua.** Erregistroetara sartzea

Erregistro horietara sartu ahalko dira, beren eskumenen esparruan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaletako Laguntza Espezializatuaren Zuzendaritzako titularrak, zuzendaritza medikoetakoak eta erizaintzako zuzendaritzetakoak. Halaber, sartu ahalko dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak, bere eginkizunak legezkontasunez betetzen ari dela, baimendutako pertsonak, eta interesduna bera edo haren ordezkaria –kasu horretan, sarbidea interesdunari buruzko datuetara bakarrik izanen da–.

**8. artikulua.** Erregistroetako datuak eta konfidentzialtasuna

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu informazioaren konfidentzialtasuna ziurtatzeko, bai eta informazioa soilik antolamenduzko edo osasun arloko xedeetarako eta xede estatistiko edo zientifikoetarako erabiliko dela ziurtatzeko ere, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.

Datuak kudeatzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak beharrezkoak diren jarduketak eginen ditu izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuak sortzeko eta foru lege honetan arauturiko erregistroetan jasotako datuak indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatzeko.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## I. eranskina

Haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko kontzientzia-eragozpenaren adierazpena

Izena:.....  
 NAN zenbakia:..... Titulazioa (1):.....  
 Espezialitatea (1): .....  
 Osasun zentroa:.....  
 Zerbitzua:.....  
 Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoaren 19.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, zeinak haurdunaldiaren borondatezko etetearen parte-hartze zuzena duten langileei aitortzen baitie kontzientzia-eragozpena baliatzeko eskubidea,

## ADIERAZTEN DUT:

Haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko kontzientzia-eragozpena, ondoko kasuetan:

- Haurdunaldia lehenbiziko hamalau asteetan etetea.
- Haurdunaldia arrazoi medikoak tarteko direla etetea: haurdunaldia 22 aste baino gehiagokoa ez izatea, eta arrisku larria izatea haurdun dagoen emakumearen bizitza edo osasunarentzat.
- Haurdunaldia arrazoi medikoak tarteko direla etetea: haurdunaldia 22 aste baino gehiagokoa ez izatea, eta umekiak anomaliak izateko arrisku handia izatea.
- Haurdunaldia arrazoi medikoak tarteko direla etetea: umekiak bizitzarekin bateraezinak diren anomaliak dituela detektatzen bada.

Baimena ematen dut, adierazpen honen esparruan, kontzientzia-eragozpenarako eskubidea baliatze aldera egokiak, bidezkoak eta ez-gehiegizkoak diren niri buruzko datu pertsonalak jasotzea eta tratatzea.

Sinatzen dut .....n, 20....(e)ko .....ren .....(e)an

## SINADURA:

.....ko Osasun Barrutiko Laguntza Espezializatuko zuzendari kudeatzaile jaun/andrea. Kalea:.....  
 Zenbakia:..... Posta kodea:.....

(1) *Ginekologiako eta obstetriziako fakultatibo espezialista / Anestesiologiako eta erreanimazioko espezialista / Eri-zaintzako diplomaduna / Emagina.*

## DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua

ak jakinarazten du adierazpen hau betetzean emandako datu pertsonalak datuen fitxategi automatizatu batean sartuko direla, haien tratamendurako. Halaber, jakinarazten da datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubideak balia daitezkeela. Horretarako, idazki bat igorri beharko zaio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketako titularrari.

## II. eranskina

Haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko prestutasunaren adierazpena

Izena:.....  
 NAN zenbakia:..... Titulazioa (1):.....  
 Espezialitatea (1): .....  
 Osasun zentroa:.....  
 Zerbitzua:.....

## ADIERAZTEN DUT:

Haurdunaldiaren borondatezko eteteak egiteko prest nagoela, ondoko kasuetan:

- Haurdunaldia lehenbiziko hamalau asteetan etetea.
- Haurdunaldia arrazoi medikoak tarteko direla etetea: haurdunaldia 22 aste baino gehiagokoa ez izatea, eta arrisku larria izatea haurdun dagoen emakumearen bizitza edo osasunarentzat.
- Haurdunaldia arrazoi medikoak tarteko direla etetea: haurdunaldia 22 aste baino gehiagokoa ez izatea, eta umekiak anomaliak izateko arrisku handia izatea.
- Haurdunaldia arrazoi medikoak tarteko direla etetea: umekiak bizitzarekin bateraezinak diren anomaliak dituela detektatzen bada.

Baimena ematen dut, adierazpen honen esparruan, prestasun hori eraginkor egite aldera egokiak, bidezkoak eta ez-gehiegizkoak diren niri buruzko datu pertsonalak jasotzea eta tratatzea.

Sinatzen dut, .....n, 20....(e)ko .....ren .....(e)an

## SINADURA:

.....ko Osasun Barrutiko Laguntza Espezializatuko zuzendari kudeatzaile jaun/andrea. Kalea:.....  
 Zenbakia:..... Posta kodea:.....

(1) *Ginekologiako eta obstetriziako fakultatibo espezialista / Anestesiologiako eta erreanimazioko espezialista / Eri-zaintzako diplomaduna / Emagina.*

## DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetze



aldera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak jakinarazten du adierazpen hau betetzean emandako datu pertsonalak datuen fitxategi automatizatu batean sartuko direla, haien tratamendurako. Halaber, jakinarazten da datuak eskuratzeko,

zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubiak balia daitezkeela. Horretarako, idazki bat igorri beharko zaio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketako titularrari.

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko irailaren 14ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proposamena 2010eko apirilaren 13ko 37.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan produkzio integratuko marka bat sor dezan Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorerako.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren urratsak egin ditzan produkzio integratuko marka bat sor dezan Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorerako.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan, Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorearekin batera, produkzio integratuko marka bat sor dezan Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorerako.

Zioen azalpena

Produkzio integratuak, foru araudiak ezartzen duen moduan, berme gehigarria adierazten du elikadura-fase guztietan; hau da, animalia sortu edo

hazten denetik produktua saltzen den arte. Halaber, adierazten du baldintza gehigarriak eskatzen direla jada araututa dagoen elikaduran eskatzen direnekin alderatuta, ingurumenarekiko errespetu handiagoa erakusten dutenak, eta produktu horiek animalien ongizateari buruzko araudia erabat beteta lortzen direla.

Produkzio integratuan, Administrazio Publikoak produkzio kontrolatzen du produkzio-metodoaren aldi bakoitzean, eta modu sinesgarrian ziurtatzen du prozesu osoaren errealitatea eta segurtasuna.

Dakigunez, produkzio integratuak kezka handiagoa erakusten du elikagaien segurtasunari eta baliabide naturalak zaintzeari buruz, araudi tekniko baten bidez.

Ezaguna da gure erkidegoan zenbait produkturen produkzio integratua arautu dela jada, eta, halaber, egia da produkzio integratuaren araudia aplikatzeak balio erantsia ematen diola produktuari, eta horrek mesede egiten diola ekoizleari edo abeltzainari, kasuaren arabera.

Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren urratsak egin ditzan, Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorearekin batera, produkzio integratuko marka bat sor dezan Nafarroako untxi hazkuntzaren sektorerako.

Iruñean, 2010eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroan bete dadin Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroan bete dadin Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2008ko ekainaren 6ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 10/1990 Foru Legearen 5. artikuluen aldaketa argitaratu zen. Hona hemen aldaketaren edukia: "Gaixo batek, eskubideen subjektu gisa, aitortuak ditu Nafarroako osasun publikoaren barruan eta itunpeko osasunaren barruan, besteak beste, haurdunaldiaren borondatezko etetea, betiere legez aurreikusitako baldintzetan." Halaber, azken xedapen bat gehitu zen: "Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariari behar diren ebazpenak eman ditzan abian jartzeko, profesionalen kontzientzia eragozpen pertsonala, berariaz adierazitakoa, zorrotz errespetatuz, behar adinako egitura profesional bat, duintasunez emanen duena haurdunaldiaren borondatezko eteteari berez dagokion osasun zerbitzua legez

ezarritako baldintzetan, betiere Nafarroako osasun sistema publikoaren barruan." Bada, Nafarroako Gobernuak lege hau urratzen du sistematikoki.

Geroago, Diputatuen Kongresuan, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoaren eztabaidan, Nafarroa Baik zuzenketa bat aurkeztu zuen, eta onetsi egin zen. Azken xedapenetan bosgarrena zen: "Legearen aplikazio esparrua. Autonomia erkidegoen eskumenak ezertan galarazi gabe, lege hau Estatuaren lurralde osoan aplikatuko da. Osasun arloko agintari eskudunei dagokie lege honetan jasotako prestazioa haurdun dagoen emakumea bizi den autonomia erkidegoko osasun sare publikoan edo itunduan eskainiko dela ziurtatzea, hark hala eskatzen badu."

Nafarroako Gobernuak lege honen aurkako errekurtsoa aurkeztu du Konstituzio Auzitegian, baina, hala ere, aipatu auzitegiak epaia eman arte legea indarrean dago, Nafarroako Gobernuak betetzen ez badu ere.

Geroago, Nafarroako Parlamentuak azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen beste aldaketa bat onetsi zuen, 5.14 artikulua alegia. Hona hemen testua:

"Gaixotasun fisiko nahiz psikiko guztien osasun-estaldura orokorra edukitzeko eskubidea, legeek ezarritakoaren barruan. Emakumezkoak diren herritarrek, eskubideen subjektu gisa, aitortuak dituzte, Nafarroako osasun publikoaren barruan eta itunpeko osasunaren barruan, besteak beste, haurdunaldiaren borondatezko etetearen osasun-prestazioa, betiere legez aurreikusitako baldintzetan.

Osasun-arloko agintariek bermatuko dute zerbitzu hori ematea zerbitzu-sare publikoan eta Nafarroaren osasun-eskualdearen barrenean, berekiak nahiz kanpoan kontratatutakoak diren lantalde mediko eta osasuneko bidez, horrela osasun-prestazio hori bermatzeko.

Foru Komunitateko Osasun Administrazioak prestazio osagarriak ezarri ahalko ditu, aurretik programazio berekia eta aurrekontu-zuzkidura berezia izanda gauzatuko direnak, eta helburu gisa izanen dute arrisku bereziko faktoredun gizar-

te-taldeak babestea, lan-osasuna bereziki kontuan hartuz”.

Oraingoz, lege hori ere ez da betetzen ari.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak

har ditzan Nafarroan bete dadin martxoaren 3ko Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko Lege Organikoa.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 2an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da flebotomia terapeutikoak modu zentralizatuan eta hematologiako espezialista baten ikuskaritzapean egin daitezen.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita flebotomia terapeutikoak modu zentralizatuan eta hematologiako espezialista baten ikuskaritzapean egin daitezen.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Flebotomia terapeutikoekin egiten den tratamendua (odolusteak) egokia da gehiegizko burdin kopurua izatea eragiten duten patologietan.

Tratamendu hori egokia da kasu hauetan:

1.- Hemokromatosi hereditarioa (HH) da kasurik ohikoena. Gaixotasun hereditarioa da, eta bere ezaugarria nagusia da burdinaren metabolismoaz arduratzen den genea akastuna dela. Kalkulatzen da gaixotasunaren eragina arraza kaukasorrearantz 1/200-400 ingurukoa dela, eta pertsona heterozigotikoen kopurua –genearen eramaileak– % 6 eta % 15 artekoa dela.

2.- Anemia sideroblastikoak.

3.- Azaleko porfiria berankorra.

Azken bi patologiak ez dira hain ohikoak.

Patologia horien pronostikoari dagokionez, zirrosi, diabetez edo miokardiopatiarik ez bada garatzen, gaixoen biziraupena gainerako populazioaren antzekoa da, tratamendua jasoz gero.

Hasierako tratamenduan, 450 ml-ko aldizkako flebotomiak egiten dira, astero edo bi astetik behin, ferritina plasmatikoa 50 nl/mg-tik beherakoa izan arte; ondoren, mantentzeko tratamendua ematen da –aldizkako flebotomiak 3-6 hilabetetik behin–, burdin gordailuak normalizatu arte.

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du flebotomia terapeutikoak modu zentralizatuan egin daitezen Odol Bankuan edota Ospitaletegiko, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko edo Lizarra García Orcoyen Ospitaleko hematologia zerbitzuetan, betiere hematologiako espezialista baten ikuskaritzapean.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 16an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari kargu hartzen dio, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidearen erabilerari dagokionez, eta legedia osorik eta leialki bete dezan exijitzen dio.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari kargu hartzen baitio, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidearen erabilerari dagokionez, eta legedia osorik eta leialki bete dezan exijitzen baitio.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuak, joan den apirilaren 19an eginitako bilkuran, erabaki zuen izapideak egiten hastea Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aurkako konstituziokontarakotasun-errekurtsioa aurkezteko.

Ildo horretatik, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Kontseiluari presako bidetik eskatzea nahitaezkoa den txostena.

Osasun kontseilari María Kutzek iragarri zenez, errekurtsioa legeko bosgarren xedapen gehigarriaren kontra aurkeztuko da. Xedapen horrek ezartzen du autonomia-erkidegoetako osasun-agintariei dagokiela beren lurraldean bermatzea

haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidea erabili ahal izatea.

Nafarroako Kontseiluaren txostenak ondorioztatu zuen Estatuko legeak ez zituela urratzen Nafarroak dituen eskumenak. Halaber, Nafarroako Parlamentuak babestu egin du onetsitako araua, eta Nafarroako Gobernuari eskatu dio zintzoki eta bere osotasunean bete dezala.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen errekurtsioa aurkeztu du Konstituzio Auzitegiaren aurrean.

Berriro ere, Nafarroako Gobernuak bere aurreiritzi ideologikoak lehenetsi ditu, eta ez Nafarroako emakumeek legez aitortuta dauzkaten eskubideen erabilera; kasu honetan, haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidea.

Aldi berean, UPNren Gobernuaren arduradun nagusien adierazpenek legea modu eraginkorrean betetzearekiko intsumisio argia erakusten dute.

Halaxe adierazi du, hitzez hitz, Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanz jaunak: "Legea interpretatuko dugu beti egin izan dugun moduan, eta norbait ez badago ados horrekin, jar dezala salaketa."

Hau da, Miguel Sanzek esan die Nafarroako emakumeei ez dezatela espero Nafarroako Gobernuak lege betetzea, eta haurdunaldia eten beharrean gertatzen badira, epaitegietara jo beharko dutela haien eskubideak Nafarroan baliatu ahal izateko.

UPNren Gobernuaren jarrera legeari desmen egite garbia da. Nafarroako osasun publikoko langile kopuru nahikoak adierazi badu ere legea osasun publikoan apliartzeko prest dagoela, Sanz lehendakariak publikoki iragarri du bere Gobernuak ez duela legea beteko.

IUN-NEBen uste dugu Nafarroako Gobernuaren jarrera horrek gainditu egiten dituela eztabaidaren eta kontrajarpen politikorekin muga zilegiak.

Ondorioz, politikoki izugarri larria den egoera baten aurrean gaude.

Aurrez aurre daukagu erakundeen erabilera sektarioa eta Nafarroako Gobernuaren intsumisioa legearen betetze erabateko eta leialaren aurka.

Nafarroako Gobernuak lege-babesik gabe uzten ditu Nafarroako emakumeak, eta Estatuko gainerako emakumeekiko diskriminatuta.

Hori guztia dela-eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren osotasunari kargu hartzen dio, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik Nafarroan haurdu-

naldiaren borondatezko etendurarako eskubidea- ren erabilerari dagokionez, eta indarrean dagoen legediaren betetze erabateko eta leialarekiko duen intsumisio-jarrerarengatik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio erabat eta leialki bete dezala Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legea, eta, ondorioz, lege horren aurka aurkeztutako konstituzio- kontraktotasun-errekurtsoa ken dezala.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 19an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait obra bukatzeko epea ezartze aldera.**

### *CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait obra bukatzeko epea ezartze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Miguel Sanz jaunak, Nafarroako Gobernuko lehendakari izateko hautagai gisa eginiko inbestidurako hitzaldian, halaxe esan zuen: “Eta, bereziki, lehenbailehen lortu behar dugu adostasuna Nafarroako abiadura handiko korridorearen erakuntza eta finantzaketari buruzko hitzarmena sinatzeko, bai eta Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak azpiegiturei buruzko hitzarmena sinatzeko ere, epeak ezartze aldera Medinaceli-Tutera autobidea, Pirinioetako autobidea, Donejakue Bideko autobidea eta Logroño arteko lotunea, aireportuaren birmoldaketa eta bi administrazio horientzat interesgarriak diren bestelako azpiegitura estrategikoak egite aldera.” CDNk, zeinak bere botoarekin babestu baitzuen Miguel Sanz jaunaren izendapena Gobernuko lehendakari gisa, eta bere Gobernuko kide izan baitzen, Nafarroako herritarrekin hartutako konpromisoak bere gain hartzen ditu eta ezinbestekotzat jotzen du proposamen hori legegintzaldi hau amaitu baino lehen gauzatzea.

Iragan urtarrilean, Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanz jaunak eta Sustapen ministro José Blanco jaunak eginiko protokolo-ekitaldi batean, iragarri zuen A-12 Donejakue Bideko autobidearen eta Errioxako Autonomia Erkidegoaren arteko lotunea egiteko lanak hasi behar zutela, zenbait urtetako atzerapenarekin bada ere. Hala ere, uda honetan, Sustapen Ministerioak gastua-

ren murrizketa iragarri du, gerora zuzenketak egin baditu ere, eta beharrezkoa ez zen zalantza sortu du obra horiek egitearen eta obren epearen inguruan.

Nafarroako Gobernua A-21 Pirinioetako autobidearen azken fasea betetzen ari da, Aragoiko mugara arte; aurreikuspenen arabera, 2011ren amaierarako bukatuta egonen da. Bestalde, Sustapeneko Ministerioak, gastu-murrizketari buruz eginitako iragarpenarekin, obra honen gaineko zalantzak areagotu ditu. Horrek Huesca eta Lleidako alkateen kezua eragin du, eta horren aurrean, Ministerioak zenbait zuzenketa egin ditu. Hala ere, oraindik zehazteke daude Pirinioetako autobidea eta Erronkariko lotunea egiteko epeak, azpiegitura horiek beharrezkoak badira ere Nafarroako eskualde garrantzitsu horren garapenerako.

Medinaceli-Tutera autobideari eta Nafarroan jada amaituta dagoen N-232 errepidearen bikoizketari dagokienez ere sortu dira zalantzak, Sustapeneko Ministerioak ez baititu aipatu ere egin bere zuzenketetan.

Abiadura Handiko Trenari dagokionez, CDNk obra hori babesten du, Nafarroako industria- eta enpresa-sektorerako oso garrantzitsua izateaz gain, beharrezkoa baita foru erkidegoaren garapen sozial eta ekonomikoa ahalbidetzeko. ADIFekin sinaturiko hitzarmenak ez badu ziurtatzen Plasencia de Jalón eta Castejón arteko zatia eraikitzea, Sustapen Ministerioak iragarritako murrizketek are zalantza gehiago sortzen dituzte Nafarroako AHTren ezinbesteko loturari buruz.

Uda honetan, Sustapen Ministerioak espero ez zen sorpresa bat ere eman digu; izan ere, jakin da

Itoizko urtegiaren urtegi osagarrien lanak geldiarazi egin direla. Hala, gure erkidegoko obra garrantzitsu horrek ere, azalpenik gabe, Sustapen Ministerioak Nafarroarentzat garrantzitsuak diren azpiegitura gehienetan egiten ari den kudeaketaren eragina izan du.

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak, aginduta bezala, azpiegiturei buruzko hitzarmen bat sinatuko balute, aipatu azpiegiturak betetzeari buruz dauden zalantzak behin betikoz argitzeaz gain, lan horiek berekin dakarten enpleguari eta jarduera ekonomikoari buruzko plangintza ahalbidetuko litzateke eta diru publikoen kutzak bere gain hartu behar dituen gastu finantzarioen doikuntza zehatzago egin ahalko litzateke. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak azpiegiturei buruzko hitzarmen bat sina dezaten, epeak ezartze aldera ondoko lanak egiteko: A-12ko lotunea eta Medinaceli-Tutera autobidea, A-21 Pirinioetako autobidea eta Erronkariko lotunea, Nafarroako abiadura handiko tren Estatuarekin lotzeko lanak –bai Plasencia de Jalón-Castejón zatian bai Euskal Autonomia Erkidegoarekiko lotura–, Itoizko urtegi osagarriak, bai eta bi administrazio horientzat interesgarriak diren beste azpiegitura estrategiko batzuk ere.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 27an

Foru parlamentariak: Juan Cruz Alli Aranguren eta José Andrés Burguete Torres

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan Nafarroa 2012 Planari dagokionez egiteko asmoa duen murrizketa.**

### *CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkar-teak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan Nafarroa 2012 Planari dagokionez egiteko asmoa duen murrizketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

#### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea foru parlamentarien elkar-teak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

2008ko maiatzaren 23an, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2012 Plana onetsi zuen, aurkako botorik gabe.

Iragan apirilean, Nafarroako Gobernuak hedabideen aurrean iragarri zuen gastuen murrizketa eginen zuela, eta horrek Nafarroako Aurrekontu Orokorretako zenbait kontusailetan eragina izanen zuela, baina Parlamentuari ez zaio murrizketa horri buruzko informaziorik eman, behin eta berri-ro eskatu arren.

CDNk ere askotan eskatu du Nafarroa 2012 Plana berrikusteko, egungo errealitate ekonomiko eta finantzariora egokitze aldera. Iragan ekainaren 29an, Gobernuko lehendakariak hedabideen aurrean iragarri zuen Nafarroa 2012 Planean jasotako zenbait inbertsiotan izanen duela eragina gastuaren murrizketak.

Hori dela-eta, CDNk ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan Nafarroa 2012 Planari dagokionez egiteko asmoa duen murrizketa, plan horretan jasotako lanak lehentasunaren arabera finkatze aldera, Parlamentu honek onetsitako plan bat den neurrian.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 27an

Foru parlamentariak: Juan Cruz Alli Aranguren eta José Andrés Burguete Torres



**Adierazpen instituzionala, preso politiko maputxeen egoerari buruzkoa.***ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Espainiako Gobernuari, Txileko Estatuarekiko bitariko

harremanen esparruan, preso politiko maputxeen egoeraz interesa ager dezan eta giza eskubideak zorrozki bete daitezela eska dezan.”

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna helarazten baitizkio Haneen Zoabi diputatuari.***ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna helarazten baitizkio Haneen Zoabi diputatuari.

2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten dizkio Haneen Zoabi diputatuari, eta uste du nazioarteko elkartasun-ekimen baketsu batean parte hartzea ez dela nahikoa arrazoi parlamentari gisa dituen eskubideak kentzeko, hori adierazpen-eskubidea urratzea bailitzateke. Zoabi andrearen eskubideak ukatzea da, gure ustez, urratzea bere hautesleek duten esku-

bidea ordezkatuak, ikusiak, entzunak eta aintzat hartuak izateko.

2. Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez igor dezan adierazpen hau Israelgo erakunde eskudunetara. Halaber, erakunde horiei dei egiten die Haneen Zoabiren kasuan hartutako erabakia berriro azter dezaten eta, halaber, bere pribilegioak itzul diezazkioten eta Parlamentuko lanak gauzatzeko duen eskubidea errespetatzen.”

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeko zenbait epe bete ez izanari buruzkoa.***IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeko zenbait epe bete ez izanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legea garatzeko epeei buruzko galdera

• Zergatik ez dira bete aipatu legean ezarritako zenbait epe?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

**Galdera, Interes Turistikoko Festa izeneko sariari buruzkoa.***ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Interes Turistikoko Festa izeneko sariari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 191. artikuluan xedatuaren babesean, Batzorderako honako ahozko galdera hau egiten du, Interes Turistikoko Festa izeneko izendapenari buruzkoa.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak, 2010eko abuztuaren 9ko bilkuran onetsi zuen foru dekretu baten bidez, Interes Turistikoko Festa izeneko izendapena sortu zuen, foru erkidegotik kanpora ezagutarazteko turismoa areagotzen lagundu dezaketen festak, dela duten originaltasunagatik, tradizioagatik edo balio soziokulturalengatik.

Bestalde, interes nazional turistikoa duten festek modu automatikoan hartuko dute foru erkidegoko berezko izendapena.

Halaber, Nafarroako Interes Turistikoko Festa izendapenak erraztu egingen du kasuan kasuko festa nazioko edo nazioarteko interes turistikoko festa izendatu ahal izatea, bai eta laguntza bereziak eskuratzea ere.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak uste al du Nafarroako Interes Turistikoko Festa izendapena ekimen eraginkorra izanen dela gure erkidegoan turismoa

gara dadin? Nafarroako interes turistikoko zein festa proposatuko ditu ofizios Kultura eta Turismo Departamentuak, erreferentziazko foru dekretuak jasotakoari jarraikiz? Nafarroako Gobernuak uste du bidezkoa dela Obanosko Misterioa bezalako festa bat, interes turistikoa nazionala duena, ez egin ahal izatea 2010ean, Done Jakueren Urte Santua baita, ez duelako Gobernuaren laguntzarik jaso, kontuan hartuta aipatu dekretuak esaten duela aitorten horrek "laguntza bereziak eskuratzea erraztuko duela"?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 10ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak uda honetan eginiko bisitei buruzkoa.**

### *PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak uda honetan eginiko bisitei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egingen du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuko Kontseilariak ahoz erantzun diezaien Legebiltzarreko Kultura Batzordean.

Zenbat bisita egin ditu kontseilariak uda honetan (2010eko uztail-abuztuan)? Zein izan dira bisiten helburuak? Kontseilariaren bisitaldia derrigorrezkoa al da lanen bilakaera aztertzeke eta kontrolatzeko?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 25a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren webguneak euskaldunei emandako informazioa gaurkotu gabe eta oker egoteari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren webguneak euskaldunei emandako informazioa gaurkotu gabe eta oker egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egingen du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuko Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Kultura eta Turismo Batzordean.

2010eko abuztuaren 25ean, "Gu/tur" Programaren informazioa euskaraz jaso nahi bada, 2008ko urteko egitaraua eskuratzen ahal da bakarrik.

Euskaldunok zergatik ez dugu eskubidea informazio eguneratua eta zuzena eskuratzeko Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuaren webgunean?

Iruñean, 2010ko abuztuaren 25a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, zirku-arteak indartze eta sustatze aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak abian dituen ekimenei buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, zirku-arteak indartze eta sustatze aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak abian dituen ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egingen du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuko Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Kultura Batzordean.

Zein dira Kultura eta Turismo Departamentuak indarrean dituen ekimenak Nafarroan zirku-arteak indartu eta bulkatzeko?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 25a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, museoei eta bilduma iraunkorrei laguntzeko hiru kontusailak kentzeari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, museoei eta bilduma iraunkorrei laguntzeko hiru kontusailak kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Parlamentu honetako Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Aurrekontuen ekitaldi honetan, 2010eko aurrekontuan bertan behera utzi dira museo eta bilduma iraunkorrei laguntzeko zeuden hiru kontusailak; hau da, museo eta bilduma txikiei mantentze-, inbertsio- eta jarduera-beharretan laguntzeko onesten zirenak. Kontusail horietako batzuk 80ko hamarkadatik zeuden aurrekontuan.

Zer iritzi du kontseilariak kontusail horiek bertan behera uztearen inguruan?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Kultura Departamentuaren web-orrialdean organorako 2008ko musika zikloaren programa soilik kontsultatu ahal izateari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Kultura Departamentuaren web-orrialdean organorako 2008ko musika zikloaren programa soilik kontsultatu ahal izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Kultura eta Turismo Batzordean.

Organorako Musika Zikloa

Galdera

Zergatik agertzen da Kulturako webgunean 2008ko egitaraua?

Iruñean, 2010eko abuztua en 31a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, organorako musika zikloaren esku-orria ele biz egin den jakiteko.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, organorako musika zikloaren esku-orria ele biz egin den jakiteko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi T elletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egingen du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Kultura eta Turismo Satzordean.

Organorako Musika Zikloa

Galdera

Esku-orria ele-biz egin al da? Horrela bada, non banatu da ele-biz egindakoa?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 31

Foru Parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, jakiteko zein izan den udalekin izan den koordinazioa organorako musika zikloa antolatzerakoan eta jakitera ematerakoan.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein izan den udalekin izan den koordinazioa organorako musika zikloa antolatzerakoan eta jakitera ematerakoan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egingen du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Kultura eta Turismo Batzordean.

Organorako Musika Zikloa

Galdera

Zein izan da udalekin izan den koordinazioa Musika Ziklo hau antolatzerakoan eta jakitera ematerakoan?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 3a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Kultura Departamentuak aurtengo Urte Xakobeoaz egiten duen balorazioari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Kultura Departamentuak aurtengo Urte Xakobeoaz egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, 2010. Urte Xakobeoa dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzuteko Kultura eta Turismo Batzordean.

Zein da Kultura eta Turismo Departamentuak egiten duen balorazioa aurtengo Urte Xakobeoaz? Ez al da uste zena baino jende gutxiago ibili Nafarroako karrika eta bidexketan?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 31

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Liburutegi Nagusiak Alde Zaharreko bizilagunei eman beharreko mailegu zerbitzuari eta lekuko kontsultari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Liburutegi Nagusiak Alde Zaharreko bizilagunei eman beharreko mailegu zerbitzuari eta lekuko kontsultari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Kultura eta Turismo Batzordean.

Nafarroako Liburutegi Nagusiko webgunean 2010eko irailaren 2an honako hau irakur daiteke:

“Ohar garrantzitsua! Liburutegi berrira lekualdatzearen prestakuntzak direla eta, irailaren 1etik liburutegi berria ireki arte, mailegu zerbitzua eta lekuko kontsulta kenduko dira.”

Alde Zaharreko bizilagunek noiz izanen dute aukera beren auzoan mailegu zerbitzua eta lekuko kontsulta berreskuratzeke?

Iruñean, 2010eko irailaren 2a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren arratsaldeko zerbitzuari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren arratsaldeko zerbitzuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egingen du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Kultura eta Turismo Batzordean.

Nafarroako Liburutegi Nagusiko webgunean 2010eko irailaren 2an honako hau irakur daiteke:

“Udako ordutegia. Uztailaren 1etik abuztuaren 31 bitarte Nafarroako Liburutegi Nagusiak astelehentik ostiralera irekiko du 8:30etatik 14:45ak arte. Garrantzitsua: Itxi baino ordu laurden bat lehenago ez da mailegurik egingo.”

Zergatik ez da arratsaldeko zerbitzurik eman Nafarroako Liburutegi Nagusian?

Iruñean, 2010eko irailaren 2a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, ordenagailu nagusi berriaren erosketari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, ordenagailu nagusi berriaren erosketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein izan da ordenagailu zentral berriaren kostua?

- Nafarroako Gobernuak zein kontusail erabili du ordenagailu zentrala erosteko?

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero



## **Galdera, Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proiektuaren gainekoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proiektuaren gainekoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko gal-

dera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Parlamentuak eskatu dio Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari Legebiltzarrerara igor dezan Nafarroako Bidaiari Garraioari buruzko Plan Integrala (PITNA), talde politikoek egokitzat jotzen dituzten proposamenak egin ditzaten, Gobernuak prestatutako beste plan batzuen kasuan egiten den moduan. Antza denez, kontseilari andreak adierazi duen moduan, plan hori konplexuagoa da, dituen osagai teknikoak tarteko.

Galderak:

Nafarroako Bidaiari Garraioari buruzko Plan Integralaren proiektuari buruzko kontsultarik egin al zaie bidaiarien garraioaren sektoreko profesionali?

Hala bada, zein izan dira haiek eginiko ekarpenak?

Iruñean, 2010eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak pasabide kanadarrak konpontzeko eta aztertzeko darabilen prozedurari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak pasabide kanadarrak konpontzeko eta aztertzeko darabilen prozedurari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Aitor Etxarri Pellejero, Nabarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Zein da Nafarroako Gobernuak "paso canadiense" deiturikoak konpontzeko eta aztertzeko erabiltzen duen prozedura?

Iruñean, 2010eko uztailaren 23an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Erriberan ozonoaren maila igotzeari buruzkoa.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Erriberan ozonoaren maila igotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Urtetik urtera, neurketak egiten hasiz geroztik, Nafarroako Erriberako herri askotan erregistraturiko ozono kopuruek airearen kalitateari buruzko ingurumen-legerian ezarritako gehieneko mailak gainditzen dituzte.

Egoera kezagarria da; izan ere, airean ozono troposferiko kopuru handiak izateak biriketako gaixotasunak dituzten pertsonen arnas-aparatuko arazoak izateko arriskua areagotzen du epe luzean.

Legerian ezarrita dago urtean zenbat egunetan izan daitekeen airean 120 mikrogramotik gora ozono metro kubikoko. Bada, Nafarroako Gobernuak eginiko neurketen arabera, aurten Tuteran eta Arguedasen gainditu egin da egunen gehieneko kopuru hori.

Nafarroako Gobernuak, airearen kalitatea neurtu eta herritarrei informatzeaz gain, atmosferan ozono kopuru ezohiko horren arrazoa zein den ikertu behar du.

Egoera horren jatorria ikertu behar du, Erriberan urtero errepikatzen baita eta frogatuta baitago airean ozono kopuru handia izateak konplikazio larriak ekar diezazkiela biriketako gaixotasunak dituzten pertsonen.

Hori dela eta, ondokoa jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak ba al daki zergatik diren haien altuak ozono kopuruak Nafarroako Erriberan?

Baldin badaki, zergatik gertatzen da eta zer neurri hartuko ditu egoera hori konpontzeko?

Iruñean, 2010eko uztailaren 28an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Aralarko guardetxe berriari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Aralarko guardetxe berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zein egoeratan daude Aralarko guardetxe berria eraikitzeke izapideak?

2. Noizko dago aurreikusita hasiko eta bukatuko direla obrak?

3. Zein izan da obra horren aurrekontua?

4. Zein kontusail erabiliko da hori ordaintzeko?

Iruña, 2 de agosto de 2010

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioari buruzkoa.**

*TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jimenez Hervás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Gaia: Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepio Orokorra

1.- Barañaingo Udalak Montepioari atxikitako 14 funtzionario ditu bere plantilla organikoan –Nafarroako udal funtzionarioen % 0,48, Iruña, Tuter eta Tafalla alde batera utzita–. Hori horrela izanda, zergatik hartzen du bere gain Montepioaren finantzaketa-kostuaren % 5,89 ( 1.060.286,54 euro)?

2.- Nafarroako zenbat udaletan gertatzen da halako deskonpentsazioa? Horri buruzko informazio xehaketa nahiko nuke.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 16an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

## **Galdera, “Sección clonal y sanitaria de la vid y patrones de vid en Navarra” izeneko ikerkuntza proiektuari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, “Sección clonal y sanitaria de la vid y patrones de vid en Navarra” izeneko ikerkuntza proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zer kontusail erabili da Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroak eginiko ikerketa-proiektua, *Mahatsondoaren hautaketa klonala eta sanitarioa eta mahatsondo ereduak Nafarroan izeneko*, ordaintzeko?

2. *Mahatsondoaren hautaketa klonala eta sanitarioa eta mahatsondo ereduak Nafarroan* izeneko ikerketa-proiektuaren kopia bat eskuratu nahiko nuke.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 24an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Lizarran eginen diren Karlismoari buruzko IV. Jardunaldiei buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Lizarran eginen diren Karlismoari buruzko IV. Jardunaldiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egingen du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak Karlismoari buruzko laugarren jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldiak Lizarran eginen dira irailaren 22tik 24ra, “Por Dios, por la Patria y el Rey. Las ideas del carlismo” izenburupean. Edizio honetan mugimenduaren alderdi ideologikoak aztertu eta karlismoaren teorialari garrantzitsuenetako batzuk hizpide izango dira.

Galdera

Zein da jardunaldi hauen aurrekontua? Zenbat jende eman du izena parte hartzeko? Zein da jarduera honen helburu nagusia?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 25a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Familiei Laguntzeko Foru Lege proiektuari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Familiei Laguntzeko Foru Lege proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zenbateraino dago prestatuta Familiak Babesteko Foru Lege proiektua?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Familia-bitartekotzari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Familia-bitartekotzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zenbateraino dago prestatuta Familia bitartekotzari buruzko Foru Lege proiektua?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak proposatu dituen eskualde-eragineko jarduketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

Nafarroako Gobernuak egin beharreko eraginezko jardueri dagokienez:

- Zein da Segurtasunaren Hiriaren egungo egoera?

- Zein da Ikerketa Biomedikoko Zentroaren egungo egoera?

- Zein da Bereizmen Handiko Laguntza-zentroaren egungo egoera?

- Zein da Irudi Medikoaren Zentro Nazionalako azpiegitura zientifiko-teknikoaren egungo egoera?

- Zein da Nafarroako Ubidearen eraginpeko eskualde ureztagarrien egungo egoera?

- Zein da Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriaren egungo egoera?

- Zein da Iruñeko Zaharrentzako Egoitzaren egungo egoera?

- Zein da Lizarrako Zaharrentzako Egoitzaren egungo egoera?

- Zein da Tuterako Zaharrentzako Egoitzaren egungo egoera?

- Zein da Sarrigurengo Zaharrentzako Egoitzaren egungo egoera?

- Zein da Lizarrako Oncineda zentroaren egungo egoera?

- Zein da Lizarrako Santo Domingo zentroaren egungo egoera?

- Zein da mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko erabilera anitzeko zentroaren egungo egoera?

- Zein da abiadura handiko tren geltokiaren udalez gaindiko plan sektorialaren egungo egoera?

- Zein da Nafarroako logistika eremuen egungo egoera?

- Zein da Aireportu Hiriaren egungo egoera?

- Zein da Pirinioetako Plana garatzeko proiektu enblematikoen egungo egoera?

- Zein da 2. Belaunaldiko Bioerregaien Zentro Nazionalako azpiegitura zientifiko-teknikoaren egungo egoera?

- Zein da IKTen Hiriaren egungo egoera?

- Zein da banda zabalaren egungo egoera?

- Zein da Lurreko Telebista Digitalerako Azpiegituren Planaren egungo egoera?

Iruñean, 2010eko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak eman dituen “Nafarroa Abalei” buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak eman dituen “Nafarroa Abalei” buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zeintzuk dira Nafarroako Gobernuak emandako 20 “Nafarroa abalak”? Onuradun bakoitza nor den eta horietako bakoitzari zenbateko kopurua abalatu zaion jakin nahiko nuke.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Mendekotasunaren Legea indarrean sartu zenez geroztik mendekotasun-graduak zehazte aldera egin diren balorazioei buruzkoa.**

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Mendekotasunaren Legea indarrean sartu zenez geroztik mendekotasun-graduak zehazte aldera egin diren balorazioei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaietako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Mendekotasunaren Legea indarrean sartu zenez geroztik, zenbat berrikuseta eta birkalifikazio egin dira mendekotasun-graduen balorazioari dagokionez?

Horietatik zenbat geratu dira mendekotasun-gradu berean, zenbat igo dira graduz eta zenbat jaitsi? Aldatu direnen kasuan, adierazi aurretik zuten gradua eta orain eman zaiena. Berrikuspenetatik zenbat egin dira ofizios eta zenbat partikularrek eskatuta?

Iruñean, 2010eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

## **Galdera, zerbitzu publikoen kalitate planari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, zerbitzu publikoen kalitate planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da Zerbitzu Publikoen Kalitateari buruzko Planaren egungo egoera?

Iruñean, 2010eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

---

## **Galdera, Abeltzainen Sektorearentzako Plan Estrategikoari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Abeltzainen Sektorearentzako Plan Estrategikoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Zein da Abeltzainen Sektorerako Plan Estrategikoaren egungo egoera?

2.- Noiz idatziko da plan hori?

Iruñean, 2010eko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero



## **Galdera, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako beharriaz buruzko azterlana egite aldera sortutako taldeak eginiko urratsei eta ateratako ondorioei buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkezturiko galdera, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako beharriaz buruzko azterlana egite aldera sortutako taldeak eginiko urratsei eta ateratako ondorioei buruzkoa, erretira-

tu izanaren berri izan zuela adieraztea. Galdera hori 2010ko ekainaren 25eko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat txanda murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa.**

**Oposizio-lehiaketa bete gabe gelditu da**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat txanda murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia dela-eta egindako txostena –deialdia 62. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen; biak 2010eko maiatzaren 21ekoak–, hona ERABAKIA:

**1.** Aipatu deialdian parte hartzeko Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean eskabideak aurkeztu ez izanaren berri izan zuela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat txanda murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia bete gabe gelditu dela deklaratzeari. Deialdia 62. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen; biak 2010eko maiatzaren 21ekoak.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

**Nafarroako Errepideen 2009-1016 urteetako III. Plan Zuzentzailea.**

*PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroako Errepideen 2009-1016 urteetako III. Plan Zuzentzaileari proposamenak aurkezteko epea **2010eko irailaren 22ko eguerdiko hamabik arte** luzatzea.

**2.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

